

***GIBak ERAGINDAKO INFEKZIOARAKO ETA  
SEXU TRANSMISIOZKO BESTE INFEKZIO  
BATZUETARAKO PREBENTZIO ETA  
KONTROL PLAN ESTRATEGIKOA, 2015-2018***

**Vitoria-Gasteiz, 2014ko urria**

Osakidetzaiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza Batzordeak  
onetsia, 2014ko urriaren 28an.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD

## **AURKIBIDEA**

|   |                                                                     |           |
|---|---------------------------------------------------------------------|-----------|
| - | <b>Laburpena</b>                                                    | <b>3</b>  |
| - | <b>Sarrera</b>                                                      | <b>3</b>  |
| - | <b>GIB/Hiesaren eta beste STI batzuen epidemiaren egungo egoera</b> | <b>5</b>  |
| - | <b>Zeregina, ikuspegia eta helburuak</b>                            | <b>14</b> |
| - | <b>Ildo estrategikoak, helburuak eta jarduera-ildoak</b>            | <b>15</b> |
| - | <b>Adierazleak</b>                                                  | <b>21</b> |

## **LABURPENA**

### **GIBaren eta beste STI batzuen Prebentzio eta Kontrol Plan Estrategikoa**

gogoeta bat da GIBak eta beste STI batzuek eragindako infekzioak Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun duen egoeraren inguruan. Hain zuzen, 2015-2018 urteetarako helburu eta gomendio batzuk planteatzen ditu, lau urte horietan garatu beharreko 15 Ekintza adierazten ditu eta prozesu horren adierazleak zehazten ditu.

## **SARRERA**

Euskal Autonomia Erkidegoko sanitategi hurrengo bi urteetan izango den erreferentzia-esparrua bi dokumentutan dago islatua. Lehena, **Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020** izenekoa, 2013an argitaratua, Osasun Sailak hamarkada hau amaitu arte izango duen bide-orria da. Dokumentu horretan, 2.11 Helburuak honako hau planteatzen du: ***Sexu-transmisiozko infekzioak eta GIBaren diagnostiko berantiarra murriztea, batez ere prebentzioan eraginez***. Horretarako, hiru ekintza eta lau adierazle zehazten dira.

Ekintzak

2.11.1. Biztanleentzat, eta batez ere gazteentzat eta gizonekin sexua duten gizonentzat, prebentzio-programak garatu eta emakumeen ahalduntzea sustatu, beren autonomiarako, sexualitateari buruzko erabakiak hartzean autozaintzarako praktikak garatu ditzaten eta arrisku-praktikak murriztu daitezten.

2.11.2. GIBaren testa egitea sustatu arrisku-jokabideak dituzten pertsonengan.

2.11.3 Sexu-transmisiozko infekzioen zaintza, diagnostiko goiztiarra eta tratamendua hobetu.

Bestalde, **Lerro estrategikoak eta ekintza-planak 2013-2016** izeneko dokumentuan (Osakidetza argitaratua, 2013ko ekainean), bi aipamen egiten zaizkie GIBari, hiesari eta beste TSI batzuei.

1-1 Helburuan (***Pertsonen eta herritarren osasuna babestea unibertsaltasunaren, elkartasunaren, ekitatearen eta kalitatearen printzipioen arabera, generoaren eta gizarte-egoera ahulenean dauden ikuspegiak eraginez***), 1.1.7. ekintza agertzen da: ***HIESA duten gaixoen eta gaixotasun psikiatrikoak dituztenek jasaten dituzten estigma, bereizkeria eta desberdintasunak murriztea***.

Eta 1-7 Helburuan, berriz (***Osasun-prebentzioko programak eta baheketako programak bultzatzea herritarren artean***), bi ekintza daude:

*1.7.5. GIBaren eta HIESaren transmisioa eta sexu bidezko transmisioiko infekzioak prebenitzea, bereziki arrisku-taldeetan eta gazteetan arreta jarritz.*

*1.7.6. GIB bidezko infekzioen diagnostiko goiztiarra bultzatzea, GIBaren probak bultzatuz.*

Beste testuinguru batean, HIESaren Prebentzio Programen Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Nazionalaren bileran, 2013ko abenduaren 19an, Hiesaren eta STIen Plan Nazionalak –zeina Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak eta autonomia-erkidegoek osatzen baitute– **GIBak eta beste ITS batzuek eragindako infekzioetarako Prebentzio eta Kontrol Plan Estrategikoa 2013-2016** onetsi zuen. Dokumentu hori administrazio zentralaren eta autonomia-erkidegoen artean egin, eztabaidatu eta adostu da.

Hiru dokumentu horiek osatutako esparruan oinarrituta egin du Euskal Autonomia Erkidegoko Hiesaren eta STIen Planak **GIBarentzako eta STIentzako Plan Estrategikoa, 2015-2018**.

Plan horretako berrikuntza garrantzitsuetako bat izan da **sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk (STI) sartu direla**, hainbat arrazoi direla medio:

- Gero eta STI-diagnostiko berri gehiago egiten dira; batez ere, sifilisarenak eta gonokoziarenak.
- STI bat izanez gero, handitu egiten da GIBaz kutsatzeko arriskua, eta dagoeneko GIBa dutenek hura beste batzuei transmititzeko gaitasuna ere bai.
- Oso ohikoa da GIBarekin eta beste STI batekin ere infektatzea, eta, horregatik, STIak diagnostikatzeko GIB-infekzio berriak ere diagnostikatzen dira.
- Sexu-transmisiozko infekzioen kasuak hobeto kudeatzeak, besteak beste, berekin dakar GIBak eragindako infekzioen intzidentzia murriztea biztanleria orokorrarengan.
- Nahitaezkoa da sinergiak sortzea: GIBaren prebentziorako mezuak eta beste STI batzuei buruzkoak antzekoak dira. Horregatik, beharrezkoa da GIBarentzat lehendik ere erabiltzen ziren egiturak zabaltzea, beste STI batzuk ere prebenitzeko.
- STIak GIBaren Planean sartzea bat dator OMEk, Gaixotasunen Prebentzio eta Kontroleko Europako Zentroak (GPKEZ) eta halako beste nazioarteko organismo batzuek egin dutenarekin, baita gure inguruko herrialde batzuek – Suitzak, Erresuma Batuak, Frantziak, Suediak eta Norvegiak– egin dutenarekin ere; izan ere, herrialde horiek badauzkate dagoeneko estrategia konbinatu

batzuk, STIak kontuan hartzen dituztenak. Estatu-mailako plan estrategiko autonomiko batzuetan ere sartuak daude STIak.


## **GIB/HIESAREN ETA BESTE STI BATZUEN EPIDEMIAREN EGUNGO EGOERA**

### **GIBak eragindako infekzio berriak**


2013an, Euskal Autonomia Erkidegoan GIBaren 143 diagnostiko berri egin ziren. Hori **gutxieneko historikoa da infekzio berrien erregistroa hasi zenetik**, hots, 1997tik. Zifra horretatik, ondorioztatzen da milioi bat herritarreko 65,6 kasuko tasa dagoela. Infekzio berrien % 87,4 gizonei dagokie. Diagnostikatutakoen batez besteko adina 36,7 urte da.

**Sexua gizonekin izaten dutenen gizonen (GSG) arteko transmisioaren joera goranzkoa** da oraindik ere; diagnostiko berri guztien % 55,9 dira, eta gizonei egindako diagnostikoen % 63,2. Beraz, harreman homosexualen arteko transmisioa da garrantzitsuena, bide heterosexualari gailenduta.

Infekzio berrien % 28 beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonen diagnostikatu zaizkie; batik bat, latinoamerikarrei eta afrikarrei. Ehuneko hori jaitsiz joan da 2010etik, urte hartan % 36 baitzen. Infekzio berri guztien % 52,5 berandu diagnostikatu zen (350 CD4 baino gutxiago).




### GIB infekzio berriak transmisio bidearen arabera. 2013 urtea




Guztira: 143 kasu

### GIB infekzio berriak. Transmisio bidea sexuaren arabera. 2013 urtea




### GIB infekzio berriak. Beranduko diagnostikoa. 2013 urtea




Guztira: 143 kasu

### GIB infekzio berriak jatorriaren arabera. 2013 urtea




Guztira: 143 kasu

### GIB infekzio berriak adinaren arabera. 2013 urtea



Batezbesteko adina: 36,7 urte

### GIB infekzio berriak ospitaleen arabera. 2013-2012 urteak







## Hies-kasuak

1984tik, 5.812 hies-kasu berri diagnostikatu dira; hala, eutsi egin zaio 90eko hamarkadaren erdialdean –tratamendu antieretrobiralak orokortu zirenean– beheraka hasi zen joera horri.

2013an 48 hies-kasu berri diagnostikatu dira, eta, beraz, tasa hau da: 22,0 kasu milioi bat biztanleko. Kasuen % 22,9an, bide homosexualetik transmititu da; beste % 22,9an, bide heterosexualetik; eta kasuen % 35,4an, berriz, droga kontsumitzaileek transmititu dute, bide parenteralaren bidez. % 66,7 gizonak izan ziren, eta % 14,5, jatorri atzerritarrekoak. Edozein tokitako tuberkulosia izan zen hiesaren eritasun adierazlerik ohikoena (% 27,1), eta, haren atzetik, P. Jiroveciiaren ondoriozko pneumonia (% 25,0). Guztira, 48 pertsona hil dira.





### Sifilisa eta gonokozia

Sifilisaren 4 diagnostikotatik batek, gutxi gorabehera, eta infekzio gonokozikoaren 3tatik batek beste STI bat erakusten dute, aldi berean, eta ohikoenak klamidia-infekzioa eta kondilomak dira.


GIB-sifilis koinfekzioa % 27koa izan zen eta GIB-gonokoziarena, % 9; kasu gehienetan, kutsatuek bazekiten GIBa zutela beste STI horiek diagnostikatu aurretik. GIBarekiko koinfekzioaren prebalentzian ezberdintasunak daude, transmisio-mekanismoen arabera.

Transmisio-mekanismoarik probableena, bai sifilisarena eta bai infekzio gonokozikoarena, gizonezkoen arteko harreman homosexualak izan ziren, baina nabarmendu behar da gonokozia-kasuen artean gizonezko heterosexualen proportzio handia dagoela.


Gizonezkoekin harremanak izandako gizonezkoen sifilis- eta gonokozia-kasuen herenak, gutxi gorabehera, aho-sexuari dagozkio soilik. STI hauek hartzeko arrisku-egoera ohikoenak noizbehinkako sexu-harremanak izan ziren.

Azterlan honetan lortutako emaitzetan, zentro parte-hartzaileetan artatzen diren pertsonen egoera epidemiologikoa islatzen da; beraz, ez dute adierazten zer gertatzen den populazioaren beste segmentu batzuetan.


### OSAKIDETZAKO STI ZERBITZUAK: SÍFILIS GOIZTIARRA



### OSAKIDETZAKO STI ZERBITZUAK: GONOKOZIA




### Sífilis reciente en la consulta de ITS del País Vasco 2005-2011



Total: 389 casos



### Gonococia en las consultas de ITS del País Vasco, 2005-2011



Total: 820 casos

## Tratamendu antieretrobirala

2013an, euskal erietxeetako tratamendu antieretrobiralen gastua 39.365.241 euro izan zen, 2012an baino % 2,2 gehiago. Atenditutako pazienteen kopuru osoa 5.244 izan zen, aurreko urtean baino % 4,8 gehiago.



## **ZEREGINA, IKUSPEGIA ETA HELBURUAK**

### **Zeregina:**

GIBaren eta beste STI batzuen Prebentzio eta Kontrolerako Plan Estrategikoaren zeregina honako hau da: helburu eta gomendio batzuk ezartzea Osasun Sailak eta Osakidetzak GIBaren eta beste STI batzuen prebentzioari eman beharreko erantzuna bideratzeko, baita GIBak edo beste STI batzuek infektatuta daudenen bizi-kalitatea eta -itxaropena hobetzea ere.

### **Ikuspegia:**

Plan honen asmoa da GIBaren eta hiesaren intzidentzia, prebalentzia eta problematika psikosoziala murrizten laguntzea, epidemiari erantzun egokia emateko zernahi baliabide prebentibo, sanitario eta sozial sustatuz eta bultzatuz.

### **Printzipio gidariak**

Plan hau egiteko printzipio gidariak unibertsaltasuna, solidaritatea, ekitatea eta kalitatea dira, eta, horretarako, eragile inplikatu, profesional eta paziente guztien laguntza behar da, baita beste osasun-eragile batzuen ere, hala nola gobernuz kanpoko erakundeena.

### **Helburu orokorrak**

GIBak eta beste STI batzuek eragindako infekzioen intzidentzia murriztea.

GIBaren eta beste STI batzuen diagnostiko goiztiarra sustatzea.

GIBak edo beste STI batzuek eragindako infekzioa dutenen bizi-kalitatea hobetzea eta horri lotutako komorbiditateak prebenitzea.

GIBa edo STIren bat dutenen kontrako bereizkeria murriztea.

## **ILDO ESTRATEGIKOAK, HELBURUAK ETA JARDUERA ILDOAK**

### **1. ILDO ESTRATEGIKOA: GIBaren, HIESaren ETA BESTE STI BATZUEN ZAINZA EPIDEMIOLOGIKOA MANTENDU ETA SUSTATZEA**

#### **1. HELBURUA Informazio Sistemak egokitzea GIBaren eta beste STI batzuen epidemiaren gaur egungo egoerara.**

##### **Gomendioak**

*1.1. GIBak, sifilisak, sortzetiko sifilisak, gonokoziak, klamidiosiak eta linfogranulomak eragindako infekzio berrietarako banan-banako informazio-sistema bat diseinatu eta ezartzea Osabiden.*

*1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan GIBaren probaren gaineko informazioa biltzeko prozedura homogeneo bat diseinatu eta garatu.*

*1.3. Tratamendu erretrobiralaren gaineko informazioa biltzeko prozedura homogeneo bat diseinatu eta garatu: mota eta konbinazioak, erretrobiralek eragindako gastuak eta tratamenduan dauden pazienteen kopurua.*

##### **Ekintzak**

*1.1. GIBak, sifilisak, sortzetiko sifilisak, gonokoziak, klamidiosiak eta linfogranulomak eragindako infekzio berrietarako banan-banako informazio-sistema bat diseinatu eta ezarri Osabiden.*

*1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan GIBaren probaren gaineko informazioa biltzeko prozedura homogeneo bat diseinatu eta garatu.*

*1.3. Tratamendu erretrobiralaren gaineko informazioa biltzeko prozedura homogeneo bat diseinatu eta garatu: mota eta konbinazioak, erretrobiralek eragindako gastuak eta tratamenduan dauden pazienteen kopurua.*

### **2. ILDO ESTRATEGIKOA: OSASUNA SUSTATZEA ETA GIBak ETA BESTE STI BATZUEK ERAGINDAKO INFEKZIOA PREBENITZEA**

## **2. HELBURUA. GIBak edo STIren batek eragindako infekzioaren inguruan gehiago jakitea.**

### **Gomendioak**

#### **Biztanleria orokorra**

*2.1. GIBaren eta STIen gaineko informazioa eta heziketa indartzea, informazio hori adin, orientabide sexual eta genero-identitate orotako herritarrei zuzenduta.*

*2.1.1. Ingurune orotan nerabe eta gazteentzako sustapen esku-hartzeak lehenestea eta eskolan eta familian heziketa afektibo-sexuala lehenestea, gazteenen artean bereziki, sexu-harremanetan hasi aurreko adinean daudenean.*

*2.1.2. Profesionalak inplikatzeko, Lehen Mailako Atentziokoak batez ere, GIBaren eta STIaren inguruko sustapen- eta prebentzio-jardueretan parte har dezaten; horretarako, etengabeko prestakuntza eskaini behar zaie GIBari eta STIei buruzko alderdirik berrien inguruan.*

*2.2. Baliabiderik eraginkorrenak erabiltzea (teknologia berriak) epidemia hau osasun publikoko arazo gisa ikusarazteko, herritarrak GIBa eta STIak transmititu eta prebenitzeko mekanismoen inguruan hezi eta informatzeko kanpainak zabalduz.*

#### **Arrisku-jokabideak dituzten pertsona sexualki aktiboak**

*2.3. Herritar jakin horiei egokitutako informazio gehiago zabaltzea transmisio-arriskua murrizteko prebentzio-jokabideen inguruan; horretarako, praktika bakoitzean zehazki zer transmisio-arrisku dagoen jakinarazi behar zaie.*

*2.4. Informazioa ematea arrisku-jokabideen kasuan egin daitezkeen esku-hartze prebentiboaren gainean, arriskuak eta kalteak murriztea barne.*

*2.5. GIBaren eta beste STI batzuen epidemiaren kontra borrokatzen diren GKEetako kideei prestakuntza eskaintzea infekzio horien, arrisku-praktiken eta prebentzio-gomendioen inguruan.*

*2.6. GIBaren eta beste STI batzuen infekzioaren inguruko sustapena eta prebentzioa indartzea eta bultzatzea, iristen zailenak diren talde zaurgarrienetan parekoen prestakuntza eskainiz.*

*2.7. Sustatzea harreman-sexualak edukitzeko harreman-webguneetan GIBaren eta beste STI batzuen gaineko informazio zehatza agertzea eta GIBaren eta STIen informazioaren eta prebentzioaren inguruko webgune prestigioetsuen estekak eskaintzea.*

#### **GIBa duten pertsonak**



2.8. GIBa dutenen artean bizimodu osasungarriak bultzatzea, autozainketarekin lotutako alderdi guztiak sustatuz, bizi-kalitatea hobetu dezaten eta tratamenduari hobeto erantzun diezaioten.

2.9. GIBari eta STlei buruzko informazioa eta aholkularitza sustatzea haurdun geratzeko aukera buruan dutenen artean.

2.10. Sexu-osasunaren zaintza bultzatzeko prebentzio-neurriak sustatzea eta transmisio- eta berrinfekzio-arriskua murriztea.

2.11. Egungo egoera aztertzea, bikotekideari edo sexukideari norberaren egoera serologikoaren berri emateko ardurari dagokionez.

2.12. GIBaren aurrean zaurgarri izatearekin lotutako alderdi psikosozialak lantzea heziketaren bidez.

### **Ekintzak**

2.1. Teknologia berriak sustatu, herritarrek eskurago izan dezaten GIBari edo STlei buruzko informazioa:

2.1.1. GIBaren eta STlen micrositea Osarean

2.1.2. Biztanleria orokorrarentzako eta sexua gizonekin izaten duten gizonentzako online kontsultak

2.1.3. Sidamedia

2.1.4. Paziente aktiboa

2.1.5. GKEen webguneak

2.2. Informazio-kanpainak egin, osasun-egitura desberdinak euskarri gisa erabiliz (ospitaleak, osasun-zentroak, farmazia-bulegoak etab.).

2.3. Lehen Mailako Atentzioko profesional sanitarioentzako prestakuntza-programak garatu GIBaren eta STlen inguruan.

2.4. KBEekin batera GIBaren eta STlen gaineko programak egin arrisku-praktikak dituztenentzat eta GIBa dutenentzat.

## **3. HELBURUA. GIBak eta STlek eragindako infekzioen intzidentzia murriztea**

### **Gomendioak**

3.1. GIBa eta STlak prebenitzeko benetan balio dutela frogatutako esku-hartze egingarri eta ebaluagarriak identifikatu eta bultzatzea.

3.2. Aztertzea eta balioestea ea komenigarria den historia klinikoan profil soziokulturalari egokitutako atal bat sartzea sexu-jokabideen inguruan –Lehen Mailako Atentzioan, bereziki–, arrisku-jokabideak identifikatu eta prebentzio-aholkularitza aurrera eramateko.

3.3. Prebentzio-jarduerak talde zaugarri desberdinei eta horien ezaugarri soziokulturei egokitzea, aintzat harturik berezko epidemiologia- eta osasun-aurrekariak.

3.4. Kalteak murrizteko programen estaldura mantentzea drogak injektatzen dituztenentzat.

3.5. GIBaren transmisio bertikalaren bidezko infekzioak hutsera eramatea, GIBa duten emakume haurdun guzti-guztiei tratamendu antieretrobirala emanda.

3.6. Erditu aurretik gure erkidegoan bizitzen gutxienez bederatzi hilabete daramaten amen seme-alaben artean sortzetiko sifilisik egon ez dadin lortzea.

### **Ekintzak**

3.1. Arreta berezia jarri sexua gizonekin izaten duten gizonentzako (GSG) prebentzio-ekintzei, kolektibo horri zuzendutako ekintzak sustatuz, honako baliabide hauen bidez:

3.1.1. Teknologia berriak

3.1.2. GKEak

3.2. Beste kolektibo zaugarri batzuetan (droga-erabiltzaileak, atzerritarrak, prostituzioan aritzen diren emakumeak...) egiten ari diren ekintzei eutsi.

3.3. Gaur egun ikastetxeetan gazte eta nerabeentzat garatzen ari diren programak sustatu.

## **4. HELBURUA. GIBak eta beste STI batzuek eragindako infekzioaren diagnostiko goiztiarra sustatzea**

### **GOMENDIOAK**

4.1. Diagnostiko goiztiarrerako gomendio-gidetan azaltzen den ezarri beharreko protokoloa garatzea.

4.2. Profesional sanitarioak sentsibilizatzea GIBaren eta beste STI batzuen diagnostikoaren garrantziaren inguruan.

4.3. GIBaren probaren eskaintza zabaltzea asistentzia-maila eta –espezialitate guztietara; bereziki, Lehen Mailako Atentziora, farmazia-bulegoetara eta KBEetara.

4.4. Kutsatzeko arrisku handiena duten herritarren artean proba sustatzea, arrisku-egoera bakoitzari egokitutako maiztasuna zehaztuta.

4.5. Aztertzea ea egingarria eta eskuragarria den autotesta modu arduratsuan erabiltzea.

4.6. STIen diagnostiko goiztiarra bultzatzea, baheketa-probak sustatuz.

4.7. STIen diagnostiko eta tratamendu goiztiarra sustatzea, GIBaren proba eginez norbaitek beste STI bat duenean edo baduelako susmoa dagoenean.

### **Ekintzak**

4.1. Gaur egun farmazietan eta GKEetan eskura dauden test lasterren programak sustatu eta horien publizitatea egin.

4.2. Lehen Mailako Atentzioan GIBaren eta beste STI batzuen testa sustatu.

## **3. ILDO ESTRATEGIKOA: GIBarekin EDO BESTE STI BATZUEKIN INFEKTATUTA DAUDEN PERTSONEN BIZI KALITATEA HOBETzea**

### **5. HELBURUA. Pazienteen jarraipen eta tratamendu zuzena bermatzea**

#### **Gomendioak**

5.1. Bizi-aztura osasungarriekin lotutako alderdi funtsezkoak azpimarratzea, infekzioarekin eta zahartze goiztiarrarekin lotutako komorbiditatea prebenitzeko.

5.2. Komorbiditatearen diagnostiko eta tratamendu goiztiarra sustatzea, baita tratamenduen ondorio kaltegarrien detekzio goiztiarra ere.

5.3.. Tratamendua eskuratzea errazteko prozedurak ezartzea, herritar zaugarrien artean bereziki, hori eragozten duten oztopo posibleak identifikatuta.

5.4. GIBaren eta STIen tratamendu goiztiarra eskura jartzea, gida kliniko eguneratuetako eta adostutako dokumentuetako jardunbide egokiei jarraituta.

5.5. GIBaren ospitale-unitateetan jarraipenari atxikitzea sustatzea.

5.6. STI-zentroen, espetxeen eta GIBaren ospitale-unitateen arteko koordinazioa indartzea, pazienteak ondo bideratu, tratatu eta haien egoera ondo jarraitu ahal izateko.

## **Ekintzak**

- 5.1. GIBa duen pazientea gaixo kroniko gisa ikusarazi.*
- 5.2. Tratamendu antieretrobiralik eraginkor eta arrazionalen jarraibideak adostu profesional sanitarioekin.*
- 5.3. STI-kontsulten asistentzia mantendu eta koordinatu.*

## **4. ILDO ESTRATEGIKOA: GIBa DUTEN PERTSONEN ESTIGMA ETA BEREIZKERIA MURRIZTEA**

### **6. HELBURUA. GIBa dutenen tratu-berdintasuna eta bereizkeriarik eza sustatzea**

#### **Gomendioak**

- 6.1. Agintari sanitarioen eta gizarte zibileko entitateen konpromisoa indartzea, kaltetuen beren parte-hartzearekin betiere, GIBa dutenen eskubideak modu eraginkorrean erabili ahal izatea sustatzeko.*
- 6.2. GIBa izateagatik baztertuta geratzeko arriskuan daudenen laguntza hobetu eta indartzea, GKEekin lan eginez, haien ingurunean –abegi-etxeetan, egoitzetan eta eskura dauden beste instalazio batzuetan– hartutako neurrien bidez eta bizitzako une zail posibleetan berariaz laguntzeko neurrien bidez.*
- 6.3. GIBa edo STIren bat duten pertsonak ahalduntzea beren burua baztertu ez dezaten, beharbada pairatzen duten estigma eta bazterkeriari aurre egiten laguntzen duten gaitasunak sustatuz.*
- 6.4. GIBaren ondorioz izan daitezkeen giza eskubideen urraketen kasuan, informazioa eskuragarri jar dadin eta legez esku har dadin sustatzea.*
- 6.5. GIBa edo beste STIren bat dutenen kontrako bereizkeriaren aurrean babesa emateko legedi indarrekoa betetzen dela ziurtatzea.*
- 6.6. Pazienteei informazioa ematea sistema sanitarioan sartu ahal izateko prozedura edota betebeharren gainean, soziokulturalki egokitzen lagunduz, halakorik beharko balitz.*

## **Ekintzak**

6.1.- *Erne egotea, seropositiboen giza eskubideak urra daitezkeen egoerarik badago ere.*

### **ADIERAZLEAK: 2018 helburua**

- GIBak eragindako infekzio berriak: % 10 murriztu dira
- GIBak eragindako infekzioen diagnostiko berantiarren tasa: % 30 murriztu da
- Adierazitako sifilis-kasuak: % 30 murriztu dira
- Adierazitako gonokozia-kasuak: % 30 murriztu dira

## **BIBLIOGRAFIA**

- 1.- Euskadirako Osasun Politikak 2013-2020. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza Vitoria-Gasteiz, 2013ko abendua
- 2.- Lerro estrategikoak eta ekintza-planak. Osakidetza 2013-2016. Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekaina.
- 3.- GIBak edo beste STI batzuek eragindako infekzioen Prebentzio eta Kontrol Plan Estrategikoa. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Madril, 2014ko uztaila.